

2005-2007 artean, langabezia-tasa Euskal AEko ia eskualde guztietan jaitsi zen

Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkestari Eustatek Europan berritzailea den metodologia aplikatu dio, lan merkatuaz eskualdeetako datuak lortze aldera

2005-2007 artean langabezia-tasa Euskal AE banatzen den eskualde ia guztietan jaitsi zen, Arabako Errioxan izan ezik; nabarmena izan da Bilbo Handia, Arratia-Nerbioi eta Gernika-Bermeo eskualdeetako jaitsiera, %3,5. Gipuzkoan Donostialdeko jaitsiera (%2) da nabarmentzekoa; Araban, Errioxan izan ezik, gainerakoetan apalki jaitsi da.

Datu hauek Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkestari (BJA) area txikietako metodologia aplikatuz landu ditu Eustatek, Euskal AEko eskualdeetako lan merkatuaren gaineko aldagai garrantzitsuenak lortzeko. Metodologia hau berritzailea da estatistika ofizialaren zenbatespen metodo klasikoekiko.

Metodologia berri eta konplexu honi esker 20 eskualdeetako (udalerrri multzoak) datu estatistikoak, lortzen dira; eskualdeak Herrialde Historikoak baino agregazio-maila txikiagoak dira, eta azken hauen araberakoa da inkestaren gaurko diseinua. Horrela, azken urteotan hainbat gizarte-eragilek planteatutako datu desagregatuen estatistika-eskari gero eta handiagoari erantzun nahi zaio.

Langabetuak hiriburuetako eskualdeetan metatzen dira

Langabeak, hots, lan bila aritu, bilatzeko kudeaketa aktiboak egin eta gainera lanerako prest direnak 2007an 32.500 direla zenbatetsi da. Gehienak (20.700) Bizkaian bizi dira; laurden bat (8.500) Gipuzkoan eta gutxi gorabeherako gainerako hamarrena Araban (3.400). Area txikietako metodologiaren aplikazioari esker, Euskal AEko 20 eskualdeetako langabetuen banaketa ezagutu daiteke.

Logikoa denez, langabetuak hiriburuetako eskualdeetan metatzen dira: Araban, Lautadan; Bizkaian Bilbo Handian; Gipuzkoan, Donostialdean. Gainerakoetan, Durangaldean eta Bidasoa Behean izan ezik, 1.000tik beherakoa da langabetuen kopurua.

Eskualdeetan badago alderik langabezia-tasan (langabetuen ehunekoa landun eta langabeen multzoaren gainean) 2007an, baina ez oso nabarmenak. Hona hemen aldeak: %4,2 Bilbo Handian; %4 Gernika-Bermeon; %2 Deba Goienean eta %1,9 Gorbeia Inguruetan; guztira ehuneko bi punturen aldean mugitzen dira 20 eskualdeetako tasak.

Eskualdeetako jarduera tasetan badago alderik 2007an

Langabetuak bezalaxe, landun gehienak ere hiriburuetako eskualdeetan bizi dira. Gipuzkoan landunak dezente banatuta daude eskualdeetan; Araban, berriz, kontzentratuago daude, izan ere sei eskualdeetatik lautan landunak 5.000 baino gutxiago dira. 2005-2007 artean landunak ugaritu egin dira eskualde gehienetan, Arabako Errioxan, Deba Goienean eta Goierriin izan ezik.

Jarduera-tasak (biztanleria landuna eta langabea, 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren gainean) baditu aldeak Herrialdeetan, eta bereziki eskualdeetan. Jarduera-tasarik baxuenak Arabako

Mendialdekoak dira (%42,2) eta Enkarterrietakoak (%46,6) dira; altuenak Donostialdekoak (%59) eta Plentzia-Mungiakoak (%58). 2005-2007an Euskal AEko hoge eskualdeetatik hamabitan hazi egin da jarduera-tasa.

Taula: Euskal AEko 16 urte eta gehiagoko biztanleria jardueraren arabera Jarduera tasa eta langabezia-tasa 2007rako zenbatespenak (ehunekoak) eta 2007-2005eko hazkundea (ehuneko puntuak); landunak: 2007rako zenbatespenak (milakoak) eta 2007-2005eko hazkundea (ehunekoak)

	Jarduera-tasa		Langabezi tasa		Biztanleria landuna	
	2007	2007-2005eko hazkundea	2007	2007-2005eko hazkundea	2007	2007-2005eko hazkundea
Euskal AE	54,4	-0,1	3,3	-2,4	964,8	+2,6
Araba	56,6	-0,1	2,3	-0,7	143,5	+1,9
Arabako Ibarrek	54,0	+9,0	2,1	-0,7	2,4	+26,3
Arabako Lautada	58,2	-0,4	2,2	-0,8	117,8	+1,5
Arabako Mendialdea	42,2	+1,2	2,9	-0,2	1,2	+0,0
Errioxa Arabarra	50,5	-4,2	2,9	+0,6	4,5	-6,3
Gorbeia Inguruak	51,7	+0,3	1,9	-1,1	3,1	+3,3
Kantauri Arabarra	49,8	+1,0	2,5	-1,1	14,5	+5,1
Bizkaia	52,6	-0,2	4,0	-3,4	500,0	+3,2
Arratia Nerbioi	47,5	+3,9	3,5	-3,7	8,6	+13,2
Bilbo Handia	52,8	-0,3	4,2	-3,6	387,0	+3,1
Durangaldea	54,7	-0,9	2,6	-3,0	41,9	+1,2
Enkartzioak	46,6	+1,8	3,7	-1,7	11,9	+6,3
Gernika-Bermeo	49,1	+0,1	4,0	-3,5	18,5	+4,5
Markina-Ondarroa	47,9	+2,2	2,4	-2,4	10,8	+8,0
Plentzia-Mungia	58,0	-1,1	3,6	-2,2	21,5	+0,5
Gipuzkoa	56,4	+0,1	2,6	-1,6	321,3	+1,9
Bidasoa Beherea	57,5	+1,6	3,0	-1,4	34,4	+4,2
Deba Beherea	49,2	-0,2	2,6	-1,6	23,0	+1,3
Deba Garaia	53,1	-4,5	2,0	-1,1	28,2	-6,9
Donostialdea	59,0	+0,2	2,7	-2,0	155,9	+2,4
Goierri	51,7	-0,7	2,6	-1,1	27,7	-0,4
Tolosaldea	55,2	+2,7	2,2	-1,9	20,5	+6,8
Urola-Kostaldea	57,4	+1,6	2,3	-1,5	31,4	+4,3

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Pilar Martínez

Tlf:+34-945-01 75 36 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es